



Tutoretzapeko etxebizitzaren zerbitzua.

Prestazio mota: Bermatua.

Baliabide mota: Egoitzako arreta zerbitzua.

Baliabidearen xedea: Egoitzako arreta zerbitzua etxebizitza normalizatuan, biktimen egoera pertsonal, ekonomiko eta gizarte eta lan arlokoa eremu normalizatu batean tratatzeko eta gizarteratzea lortzeko.

Onuradunak: Genero indarkeriaren biktimak, bakarrik edo haien seme-alaba adingabeekin edo biktimak bere tutoretza, kuradoretza edo zaintzapean edo harreran dituen pertsonekin.

Jasotzeko baldintzak:

- Abegi-etxeko egonaldia amaiturik izatea.
- Norberaren etxebizitzarik eta baliabide ekonomikorik ez izatea.

Zerbitzua irekita: Eguneko 24 orduetan, urteko egun guztietan.

Zerbitzuaren intentsitatea:

- Harrera eta esku-hartze soziala. Banakakoaren arretarako urteko plan bat egitea.
- Akonpainamendua: 140 ordu sei hilekoan, lehendabiziko urtean. 100 ordu sei hilekoan, bigarren urtean.

Egonaldiaren iraupena: urtebete, sei hileko aldietan luzatu daitekeena bigarren urtea egin arte.

Emateko epea: Hilabetea.

Ordainketan parte hartzea: Ez.

Jarduteko eremua:

Nafarroako Foru Komunitatea.


